



kalez kale kutxa ren eskutik

# Antzinako Altzatik egungora

.....  
Kasares Pasealekuari, «Buenabista Kamiyua» deitzen diote oraindik ere adineko altzatarrek



Casares Kultur Etxea.

## Aspaldiko oinetxea

gipuzkoako diputazioak, Buena-  
bistatik Martute-  
nera errepide bat egite-  
ko proiektua egin zuen.  
Mende honetan ondo  
sartuta, proiektuaren  
aurreneko parte bezala,  
zati hau egin zen. Casa-  
res (Kasares) oinetxea,  
XVIII. mendekoa, gaur  
egun kultur etxea da,  
baina izen honen leinua  
jadanik XIII. mendean  
azaltzen da. Etxe honek,  
Darieta bidearen lehen  
bidea darama. 1973ko  
Abuztuaren 31ko Udala  
Plenoak, izena onartu  
zuen.



Alta auzoa  
erruz aldatu da  
urte gutxitan,  
eta izenak ere  
azkar galtzen  
dira  
horrelakoetan.  
Hau dugu  
Buenabista  
Kamiyua  
orain Kasares  
Pasealekua.

Kasares pasealekua Buenabista hiribide-  
an hasten da; maldan gora doa eta  
bihurgune itxiak eginez, hegomende-  
balderako norabidea hartzen du. Eskuin  
aldean Oleta auzoa uzten du, ondoren Los  
Boscos eta Arrizar auzoen sarbide bihurtzen  
dela. Azkenik, Errotetako Gurutzean buka-  
zen da.

Altzatarrek normalean pasealeku hau  
«Buenabistako Kamiyua» deitzen dute.

Gaur egun ere, Altzako adineko pertsonak  
honela deitzen dute. «Los Boscos» auzoa,  
pasealeku honi dagokio; dena dela, auzotar  
hauek ez dute ahal duten neurrian erabiltzen  
beren auzoa izendatzeko.

Pasealeku honen bukaeran, plaza zirkular  
bat dago; auzotarrek «Errotetako kruzea»  
deitzen dute.

INFORMAZIO ITURRIA: JOSU TELLABIDE

**GURE KALE ETA AUZOEN HISTORIAREN PARTAIDE GARA.**

**kutxa**

Dirua, pertsonen zerbitzura